

# Nafarroa Karria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko martxoak 5 / III. urtea / 65. zenbakia


## Moneo, arkitekto unibertsala

«Zaila da bere lana sailkatzea, baina aparteko kalitatea dauka, erabat apartekoa. Kalitatearen eredu da Rafael Moneo». Horrela laburbildu zuen Pedro Manterola arte kritikariak gaur egun mundu osoan zehar ezaguna den arkitektoari buruzko iritzia. 1937an jaiotako tuterar honek eragin handia dauka egun eraikin berrien bidez inguruari eta hirien izakerari eutsi edo hautsi nahi dutenengan, eta bere lanak oinarrizko abiapuntuak dira mundu osoko arkitektura eskoletan. Azken urte hau benetan oparoa izan zaio Moneori, eta bere proiektuen artean Madrileko Atochako geltokia, Thyssen-Bornemisza Fundaziorako Villahermosako Jaurgiaren berrikuntza eta Mallorkako Palmako Miro Fundazioa aipatu daitezke.

Euskal Herriko

bere lana sobera ezaguna ez bada ere, ospe handia eman dio Donostiako Kursaalera lehiaketa irabazi izanak, eta esku artean duen proiekturik garrantzitsuenak dela dio: «Ongi ateratzen bada, lan handia izango da».

Madrileko bere etxean, ez du galdu Euskal Herriko gaiekin harremana, eta Oteiza eta Guggenheim museoari buruz bere iritzia plazaratu digu. Izan ere, bera baita gure artistarik unibertsalena.



Rafael Moneok mota guztietako lanak egin ditu 25 urte hauetan, eta aipagarrienetakoak, Meridako Erromatar Museo, Sevillako Aireportua, Madrileko Atochako geltokia eta lehiaketa irabazi berriak: Donostiako Kursaal, Veneziako Zinema Jauregia eta Stockholm-eko Museo. Argazkian, Atochako geltokian. XOUSE SIMAL

### Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

**B**ada momentu bat hitzek beste hitzei buruz baizik ez dutela hitz egiten, eta ondorioz, inor-tok ere ez daki zehaztasunez zertaz ari den, hitz-matazaren ondorioak guregan nabariak izan arren. Aste honetan bizi izan dugu une horietako bat Madrileko Kongresuan, non Langabezia gai nagusizat hartuz, eufemismoz beterik eta abstrakzio haundiko debate neoeskolastiko bat jarraitu ahal izan dugun. Banku, finantziar mundua eta nazioarteko merkatuaren goingo sektoreak, eta beraien arteko borroka merkatu internazionala definitu eta beronetaz jabetzeko, ia aipatu ere ez zuten egin 'adituek', gure ekonomia-aren gainbeheraren elementu eragilerik ez balira bezala, ederki asko jakinez, gainera, beraiek direla, neurri handi batean behintzat, mundu industrial eta post-industrialaren modelo ekonomikoaren funts eta bultzatzaileak. Bitartean, krisi ekonomikoak harrapatuak dauka gizartearen sail guztiak. Dena omen dago krisiaren menean, baina gizabanako krisidunik inon ez, antza.

Sei hilabete igaro dira nire lana galdu nuenetik. Beraz bada, langeldiketan dauden hiru milioi horietako krisiduna nauzue. Ez da, bestetik, lanbidearen bazterrean gelditzen naizen lehen aldia. Horratio, badut, bai, nolabaiteko eskarmenturik bizitzaren tiobibora —zer ote da lana bizimoduaren zati bat baino— salto egin eta, nahita ala behartuta, jaitxi egin behar den kontu honetan. Zera esan nezake egindako azken lanaz: zazpi urte paseak eman ditudala Herri Irratian, txikitandik irratiarekiko emaldu zitzaidan afizio-nea eta, gaztetandik euskeraren borrokan jarri izan dudana grina, ahal bezain ongi uztartzen saiatuz, entzuleari onena opatu asmoz. Atsegin ez aritu naiz zeregin horretan, eta hargatik, aho bete betean esango dut saminago suertatu zaidala lana uztea honakoan besteetan baino; Euskera ez da salgai merkatu pribatua. Baina ez dut neure burua deuseren biktimatzat hartu nahi: lana galtzeaz gain, langile bezala nituen eskubideak ere galtzeko gertuan ibili bainaiz. Zernahi gisaz, zorioneko langabetutzat jo nezake nere burua: Lan Magistraturak arrazoia eman baitit enpresaren kontra ezarritako kereia dela eta, eta baita ere, soldata bat jasoko dudalako hilabeteoro bi urtez, langabetuari emandako languntzaren kontura.

Guziarekin ere, langabetuen egoera ez da kasu guztietan berdina... Beste soldatarik etxean edukitzea, adina, egoera familiarra, ikasketak, sare sozial zabala izatea eta beste faktore batzuk erabakiorrak dira oso etsipen eta frustraziozko sentazioak gaitzetzeko. Langabetuak bere egin behar du bere frakasoa bat ere ahitu gabe, bere frakasoa gizartearena bezalakoa baita, nahiz koperik mingarriena, hori bai, beretzat den. Meñanoia ariketa gogor hori eginez gero, akaso, haserako ez-beharra zorion bilaka daiteke denbora bidez.

## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Koldobika Jauregi** artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Kribia galerian, martxoaren 6a arte. Gipuzkoako artistaren eskulturak lanegunetan arratsaldez eta jaiegunetan goizez ikus daitezke Goroabe kaleko aretoan.

**Gontran Chafer** artistaren erakusketa ikusgai dago Tafallako Kultur Etxean, bertako Kultur Patronatoak antolatutik. Martxoaren 17a arte zabalik egonen da erakusketa, bertan Valentziako pintore honen obrak ezaugarriak dagoelarik.

**Iruña Cormenzana** artistaren erakusketa ikusgai dago datorren martxoaren 14a arte Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodezno Kontea kalean duen aretoan. Iruñean bertan jaiotako artista honen pinturak ikusteko lanegunetan arratsaldez eta jai egunetan goizez dago zabalik aretoa.

**Jose Maria Arce** Iruñeko errestitadorearen lanak ikus daitezke datorren martxoaren 28a arte Rodezno Konte kalean Aurrezki Kutxa Munizipalak duen aretoan. Lanegunetan goizean eta jaiegunetan arratsaldean dago zabalik erakusketa.

**Emakumea Publizitatean** gaiari buruzko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan martxoaren 21a arte. Nafarroako

## Eunate: Iltzarbeibarreko bitxia

Nequeas, Obanos, Eneritz eta Añorberen arteko zonalde zabal samarra da, jendearendako, baita mendira joatera ohituratuta dauden artean ere, sobera ezezaguna. Ibilbide osoa Iltzarbeibarran dago—Eneritz eta Muruzabal—. Atzean, paisai guztia enmarkatuz, Erreniega. Nagusi dira bertan laboreak, eta mahatsa atzera egiten ari da nabarmen.

Ibilbidea Eunatetik ateratzen da, Gares eta Eneritzen arteko bidean. oso famatua arte erromaniakoaren Nafarroako bitxien artean, kondairak tenplarioei egokitzen die fundazioa. Hala ere, XIII. mendeko bigarren erdialdean sortu ziren kapera horietako dela uste da.

Joan den mendera arte iraun zuen kofradia baten menpe zegoen. Kofradia honek 1500 urtean 72 kofrade baino gehiago ez izatea erabaki zuen. Ezagutzen ez duena harrizta geldituko da barruan dagoen isiltasuna eta pakearekin.



Eunatetik Lezkalko amildegira doan bidea hartu beharko du, hegoalderuntz, eta hortik lurren konzentrazioak irekitako bideei jarraiki, Santo Domingoko

baselizaraino. Bidea gero zuzena da Eneritzera, eta ondoren Eneritz eta Garesen arteko Donojakue Bideari segitu beharra dago, Eunatearaino heltzeko.

Gobernuko Emakumearen Zuzendaritzaordeak eta IPES elkarrekin antolatutik, emakumea eta gizonen arteko berdintasunren gaia aztertzen du.

### IKASTAROAK



**Fondoko eski ikastaroak** egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak anto-

laturik. Ordutegia 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialik 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

**Astronomia**, Antzerki Teknikak, bertako Dantzen Tallerra, Ohiturak eta Erabilerak, Ohitura

Popularrak, eta bestelako ikastaroak egin daitezke Tafallan, bertako udalak eta Kultur Etxeak antolatutik. Interesatuak datorren osteguna arte, martxoak 11, dute apuntatzeko epea, herriko udaletxean.

**Estudio Afrikarren Astea** antolatu dute datorren asterako Mugarik Gabe, Sodepaz eta Las Segovianas erakundeek. Asteartean, hilak 9, hasiko da eta osti-

### ERRAN DUTE

«Publizitatea zikinikoa da, erabiltzen baikaitu».

**Mercedes de la Peña**  
Psikologoa

«Xabierren irudia eta lana gero eta garrantzitsuagoak dira».

**Angel Etxauri**  
Xabierraldien koordinatzailea

«Lopez Vallejoren aferari buelta asko eman dizkiot, eta ez diot aterabiderik ikusten».

**Fermin Ezkurra**  
Osasunako presidentea

«Julianen garaipenek badiute zapore berezi bat».

**Jose Miguel Etxabbarri**  
Banestoko zuzendaria

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Julian Gorospe



Txirrindularia

Nere bizitzako denboraldirik hoberena ari da izaten honakoa», esaten zuen Mañariako txirrindulariak, eta, akaso, ez zaio arrazoirik falta. Izan ziren, bere gazte garaian, lehendabizikoaren artean korritutako laisterketak, eta sailkapen apartak, baina inoiz baino konfidantza gehiago izango du une honetan Julian Gorospek, arrakasta nolabait ezustean heldu baitzaio. Ongi prestatua zen denboraldiaren hasierarako, baina Valentziako Itzulia eta Ruta del Solen lortutako emaitzak, ilusio gazte garaian galdu zuen txirrindulari baten itzulia dira.

#### Adolfo Araiz



HBko parlamentaria

Tafallako parlamentari aber-tzaleak defenditu zuen pasaden asteartean. Nafarroako Parlamentuan Herri Batasuna bere taldeak UPNren aurrekontuei aurkeztu zien osotara enmendakina. Azkenean hori izan zen, espero zen bezala, Alliren gobernuaren asmoak zapuztu zituena, PSN, EA eta IU taldeek baitza eman baitzioten, balorazioak egiterakoan oso iritzi ezberdinak azaldu arren. Orain aurrekontuak berriro negoziatu eta aurkeztu beharra dauka UPNren gobernuak, eta orain artekoa ikusita, txinpartak aterako dira zenbait bulegotik.

#### Alfredo Jaime



Iruñeko alkatea

Thomas de la Quadra Espainiako Justizia ministroarekin bildu zen pasaden asteazkenean Iruñeko alkatea, auzitegi berria egin beharraz hitz egiteko. Ondoren azaldu zuenez, orubeei buruz akordioa izango da, eta bertan Udala, Nafarroako Gobernua eta Ministerioak hartuko dute parte. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak oraingo auzitegiaren eraikina erosiko luke bere egoitzarako, 1.200 milioi pezetatan, eta udalak lehengo hiltzearen orubea salduko luke auzitegirako. Madrilen burutu zen bileran ere, Iruñean egin nahi den gartzelari buruz aritu ziren.

rala arte iraungo du. Bi saio dira, bata arratsaldeko 16.30etatik 19.00etara dena, eta bestea hitzaldiak Museoan. Hitzaldiak dohainik dira, baina lehenengo saioak, analisisa eta debateak, matrikula eskatzen du, 6.000 pezetakoa. Afrikatik etorritako irakasleek zuzenduko dute.

### ZINEMA



«Besame antes de morir» izenburuko pelikula ikusteko aukera egonen da datorren ostegunetan, martxoak 11, Tafallako Español zineman. Emanaldia bi saiotan izanen da, arratsaldeko 8.00etan eta gaueko 10.30etan. Herriko Kultur Patronatoak antolatutik, sarrerak 175 pezetatan salduko dituzte.

### MENDI IRTEERAK



**Belagoako Goimendi Ibilaldia** izanen da asteburu honetan, martxoak 6 eta 7, Nafarroa Kirol Elkarteak antolatutik. Larunbatean hasiko da, afari batekin Belagoako aterpean. Partaideak bere kotxetan abiatu beharko dute hara, eta inskripzioak aterpean bertan egin behar dira. Izena emateko kuota 3.500 pezetakoa da, eta afaria, gaua, gosaria, bazkaria eta azken afaria ordaintzen dira prezio horren barruan. Informazio gehiago Elkarteak Jauruta kalean duen aretoan lor daitezke.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



HERRIZ BERRI



Etxarri-Aranatz

## Bertsolariak plazara igandean

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehendabiziko kanporaketa jokatu da heldu den igandean, hilak 7, Etxarri-Aranatzen. Iazko mailari eusteko eta gazteei ate berriak irekitzeko asmotan, lau gaztek hartuko dute parte lehendabiziko aldiz aurtengo txapelketan, laurak, aurrekoak bezalaxe, Lesakako Bertso Eskolakoak.

Badira boladak, toki guztietan bezala, bertso eskoletan, eta Nafarroan horretarako astia izan ez bada ere —lehendabizikoa duela hiru bat urte sortu zen—, estreineko harrobia harribitxiak ematen hasia da. Iaz Xabier Silveira eta Estitxu Arozena izan ziren, eta parte hartu ezezik, ezusteko ederra ere eman zioten baten bati, finalerako txartela eskuratu baitzuten. Aurten Amaia Telletxea, Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea eta Aitor Telletxea saiatuko dira beren eskolakideei eusten.

Igandeko saioa aurpegi berriz beterik egongo da, eta gazteek aurten egin dezaketena antzematen hasteko parada ona izango da. Amaia Telletxea arantzarra da, 17 urte dauka, eta Bittor Elizagoien eta Manolo Arozenak zuzentzen duten bertso eskolan ikasi du bertsoan, Estitxu Fernandezek bezala. Iazko Nafarroako bertso eskolen arteko txapelketan hirugarren sailkatu zen, Silveira eta Estitxu Arozenaren ondotik. Aurtengo sorpresa izan daiteke.

Beraiekin batera, Xabier Silveira eta Manu Gomez ariko dira, biak bigarren aldiz. Silveira izan zen iazko sorpresarik atsegina, eta aurten duen maila baieztatu egin beharko du. Manu Gomez donostiarrak bigarren aldiz abestuko du Nafarroako Txapelketan, 1988an Etxarri-Aranatzen bertan parte hartu ondoren, baina aurpegi berrizat ere har genezake.

Beraiekin batera, hiru 'ohizkoak': Joxe Fermin Argiñarena erazkendarra, Antonio Olano



aranoarra eta Jean Louis Hari-nordoki 'Laka' baigorriarra. Argiñarenak badaki zer den txapeldun izatea, 1986an, Donezteben, Alkhaten aurretik nagusitu baitzen, eta Laka beti maila ona ematen duten horietakoa da.

Aurtengo txapelketa eguerdi aldera hasiko da, Sakana herrian izango diren trikitixa eta dantzariekin, ordubatean. Ondoren, bertso batzuk kantatuko dira, eta jarraian auzatea, eguraldia lagun. Bazkaria Artzabalenan izango da eta saioa arratsaldeko 4.30etan hasiko da, bertako zineman.

Hurrengo bi saioak Heletan (Nafarroa Beherea) eta Beran izango dira, hilak 14 eta hilak 28, hurrenez hurren. Heletan Kexux Arzallus, Urko Atxutegi, Estitxu Arozena, Iñigo Olaetxea, Fermin Mihura, Xalbador eta Jean Pierre Mendiburu ariko dira kantari, eta Beran, Mañolo Arozena, Bittor Elizagoien, Joxemiel Argiñarena, Aitor Telletxea, Luisito Etxeberria, Txomin Amorena eta Txomin Ezponda elkartuko dira.



'Laka' eta Joxe Fermin Argiñarena berriro elkarrekin arituko dira.

Bertiz

P.U. / IRUNEA

## Landa turismoari buruz ikastaroa

Heldu den astelehenean, hilak 8, hasiko da Bertizen Nafarroako Gobernuak antolatutako duen landa turismoari buruzko ikastaroa. Hoteletako arduradunak, ostatuak, landetxeak, jatetxe, kanpinak, erakunde lokalak eta inguruko turismoari lotutako beste alde guztiei zuzenduta dago eta bertan jorratuko dira marketin turistikoa, taldeen dinamizazioa eta mota honetako turismoaren

ezaugarriei buruzko gai anitz.

Izan ere, ikastaroa mota honetako ekimenak zabaldu eta eza-gutzeria eman diren garaian etorri da. Gogoratu behar da duela zen-

bait hilabete Bertizko Patzuergo Turistikoa aurkeztu zela, baita Baztan Bidasako turismo eta kultura bultzatzeko beste taldea ere. Aspaldian sortu zen Lande-

txetako Elkarteak. Nafarroako Gobernuaren asmoen artean Pirinioetako produktuen kalitateari arreta berezia ematea dago, landa turismoaren barruan toki garrantzitsua izan dezan.

Jardunaldiek 80 ordu iraungo dute orokorrean, eta martxo eta apirila bitartean banatuko dira. Bertara joan nahi duenak Nafarroako Gobernuko Turismo Bulegora deitzea baino ez dauka (10 77 44), eta bertan jasoko du informazio gehiago.



IRUNBERRIko Aste Berdea hasi zen pasa den asteartean, zuhaitzen landaketarekin eta atzo bertako arazgailura bisita burutu zuten. Udalak antolatutako, heldu den ostegunera arte zabalduko da, eta eskertzekoa da, egunotan egiten ari diren beste batzuekin batera, gazteak ingurua eta natura zaindu behar diren garrantziaz ohartarazten baititu. Asteartean zaborren birziklaiari buruzko mintzaldira joango dira ikasleak, ikastetxean bertan izango dena, eta ostegunean ikasleek beraiek egindako muralen erakusketa zabalduko da. Ostiralean 'Bajo la aurora boreal' filmea ikusi ahal izango da.

TUTERAKo udalbatzak oniritzia eman zion pasa den astelehenean. Balkanetako gudari buruz Batzarre taldeak aurkeztu zuen mozioari. Honen bitartez, Udalak dirutza bat emango dio Espainiako Kanpo Arazoetarako Ministerioak aholkatuko dien erakunde bati, oraindik zehaztu gabe. Batzarrearen mozioak sei puntu zituen, eta Udalak hiru onartu zituen, UPN eta PSOEren botoak zirela eta.



BERTIZARANAko idazkariaren afera berriro notizia izan da aste honetan, zenbait bizilagun eta zinegotzi ohik bere alde egindako azalpenak direla eta. Ana Frauca bertako idazkariak bere kontrako epaiketaren berri izan du duela gutxi, Udala eta bere artean luze irauten duen eztabaida dela eta. Izan ere, idazkariak errekurtsioa paratu zuen Nafarroako Auzitegia Nagusian, bere lan egoera zela eta, baina honek ezezkota eman dio eskaerari. Aurretik egindako beste epaiketaren, bere postua uztera behartzen zuen epaiak, irregulartasun zenbait zirela eta. Orain, zenbait zinegotziak Ana Frauca egindako lana azpimarratu dute, eta Udalak bereziki zoriondu zituen aldi guztiak gogoratu.

ALTSASUko PSOEko taldea abstenitu egin zen pasa den udalbatzan euskarari eman beharreko dirulaguntzen murrizketen inguruan aurkeztu zen mozioa bozkatzean. PSOEek ere ez zuen ez ezezkorik ez baiezkorik eman Oinarriak taldeak aurkeztutako mozioari, Euskararen Legearen aldaketarako eztabaidan bete beharreko zenbait puntu zehazten zituen. Axolagabekoa da talde sozialistaren jarrera dagoen eremuan egonda, eta jakinik ere bere aldeko askok benetako apustua egin dutela Altsasun euskara berpizteko.

## Rafael Moneo

**E**uskal Herrian Donostiako Kursaalera proiektuarekin ezagutu bada ere, gaur egungo arkitektoak famatuena da mundu osoan 1937an Tuteran jaio-tako Rafael Moneo. Meridako Erro-

matar Museoarekin onesten internazionala jaso zuen, eta Harvard eta New Yorken egindako irakaskuntza lanak eragin handia izan du arkitektura munduan. Madrilen harrapatu genuen, proiektu eta plano artean.

# Arkitekturaren kadentzia luzea

ALBERTO BARANDIARAN / MADRIL

Madrileko bere etxean abegitsu azaltzen zaigu mundu osoa kurritu duen arkitektoa. Apala, atsegina, ez da bere tamainako artista batengandik espero dena, akaso, baina bere harrera zinezkoa da, eta langileekin duen solasaldiek ere izakera xumea eta konfidantzazkoa erakusten dute. Proiektu, plano eta liburuez inguraturik, mantxo hitz egiten du, hitzak neurtuta, baina borobilak. Bere arkitekturaren bezalatsu, kadentzia luzeetan.

**EGUNKARIA.**— 1965an egin zenuen Zaragozako Diestre lantokitik hona etxebizitzaren birmoldaketak zein museo eta auditorium erraldoiak gauzatu dituzu, tren geltokiak eta aireportuak barne. Batzutan esan ohi da Moneok ez zuela merezi mota honetako lanak, arazo franko eta diru gutxi ematen dutelako. Non sentitzen zara eroso?

**RAFAEL MONEO.**— Zaila da erantzuten. Noizbait esan dut egin ditudan lan guztiei denbora eta lan berdintasua eskeini dieldala. Jakina, badira proiektuak, bere izakera publikoa edo bere zailtasuna dela eta, interes gehiago dutenak, eta une hauetan, soilik arkitekturaren bidetik konpondu daitezkeen arazoengatik proiektuak jasotzea dut gustoko. Hau gertatzen da bereziki paisaia edo giza inguru berezietan, eta zailtasun hauek dira gehien erakartzen nautenak: hiri inguru bati errespetua mantentzea, edo geografian batek paratzen dituen baldintzen mailan egotea. Horregatik nahiago ditut izakera garbia duten tokiak, horiek soluziobide berezkoa eta zehatza behar baitute.

**EGUNKARIA.**— Zure azken bi proiektuetan bi museo daude: Palma de Mallorcako Miro Fundazioarena eta Madrileko Thyssen-Bornemisza

Fundaziorako Villahermosa Jauregiaren berrikuntza. Hain desberdinak izanik ere —zuk esan zenuen Miro Fundazioa ez zela artistaren lanak zintzilikatzeko museo, «beren giroa dastatzeko baizik»—, zer daukate, museoak diren alde-tik, elkarrekin?

**A**rkitektura ez da bapateko artea, ez du orainaren eragina. Arkitektura lan batek gu hil ondoren iraun behar baldin badu, berritasun amorratuak ez dio justifikazio handiago ematen.

**MONEO.**— Oso gutxi. Soilik, akaso, arkitekto beraren eskua. Badute antza, nimitzua hori bai, arkitektura eta jendearen mugimenduaren arteko harremanetan, eta eraikina bera ulertu eta gauzatzeko eta materialak erabiltzeko eran. Baina erabat desberdinak dira. Mioren museoak erreakzio ia bortitza eskatzen zuen izugarri arrotza zen inguru baten aurrean, eta giro berezia sortu beharra zegoen oso artista berezi baten lanak jasotzeko. Mioren lanak, hain zuzen ere, ezaugarri hori dauka: singularitasuna eta unea harrapatzeko nahia. Ondorioz, Museoak ez da batere ohizkoa. Ura berreskuratzen du, eta teiltatu modura erabiltzen du, eta inguruan dituen eraikinei aurre egiten die.

Villahermosako arazoak erabat bestelakoa zen. Aurretik emandako datu eta pista garbiak zehaztu eta mugatzen zuten lana. Mioren kasuan ez ziren hainbeste.

**EGUNKARIA.**— Ematen du zure harremana azken honekin sakonagoa dela edo gusturago gelditu zarela emaitzarekin.

**MONEO.**— Ez gusturago arlo profesionalaren aldetik. Ez dut uste Villahermosaren proiektua Miorekin erabil ditudan baliabideekin egin zitekeela. Azkenean pertsona eta arkitekto berak arazo oso bestelakoan aurrean duen erreakzioa da. Ezin nuen Villahermosan erabili Miorekin izan dudana askatasuna. Villahermosan, askatasuna, jauregiak berak zuen bizitza berreraikitzea zen.

**EGUNKARIA.**— Zure lanetan inguruak eta tokiak badute funtsezko papera, eta beti 'okasiaroko arkitektura' egiten duzu. Hain zuzen ere, gaur egungo arkitekturaren ezaugarri bat da eklektizismoarena. Zer da: identitate bila edo identitate falta?

**MONEO.**— Gure garai honetako kultura, gero eta unibertsalagoa, identitatea bilatzeko nahiaren kontra doala dirudi. Horregatik, arkitektura mailako ikerkuntzak bereziki errepertatzen dio lurralderik gabeko asmakizunari, eta horrek sakabana-tzen du estiloa lurbira osoan.



Argiari berebiziko garrantzia ematen dio Moneok. Argazkian, Madrileko Atotxako geltokian. XOUSE SIMAL

Nere esperientziak, baina, egoera bakoitzaren berekotasuna estimatzera eramaten nau, aniztasuna onestera. Horrek eskatzen du, orobat, tratu desberdina proiektu bakoitzarentzat, gure lanak duen homogenotasun hori bigarren mailan utziz.

**EGUNKARIA.**— Meridako Erromatar Museoan erreferentzi historizista nahiko garbiak daude, eta zure lana Historian zehar izan diren mugimenduekin lotuta dago, egungo sensibilitatea galdu gabe, beti ere. Atzera begiratu beharra dago aurrera egiteko?


**MONEO.**— Ez, ez dut uste. Artearen historian nik gehien miren ditudan uneak aintzindariak izan diren horiek dira. Lan guztiek, hala ere, ez dute berriak izateko premia behar hori, eta, askotan, lanean, aurreko

erreferentzi historiko horiekin egiten dugu topo. Ez dira baztertu behar. Meridako, atzean gelditua, lurperatuta eta ahaztuta zen iragan oso bat ikusteko parada iruditzen zitzaidan eraikin berri hirirako. Garrantzitsuagoa iruditzen zitzaidan hori, norbaitek eraikinari 'historizista' deitzea baino, eta iraganaren presioa onartu nuen. Ongi asko dakit jatorrizko berritasun hori, artearen historian oso gutxitan ematen dena, oso desiragarria dela, eta niri ere, noizbait, nere lana aintzindari eta berri bihurtuko lukeen 'aingeruen hegaldia' sentitzeko parada izatea gustatuko litzaidake. Une hori heltzen den bitartean, ez daukat erreparorik iraganaren presentzia eta deia antzemateko.

**EGUNKARIA.**— Irakaskuntzare-

kin oso harreman estua izan duzu, hasieran Bartzelona eta Madril, eta geroago New York eta Harvard-en. Zer garrantzia ematen diozu irakaskuntzari Artearen barruan?

**MONEO.**— Gure lanbidean, eztabaida pizturik mantentzen duten giroan, irakaskuntzak funtsezko papera dauka. Asko laguntzen digu, noizbait, iparra erakusteko zoriarekin edo zoritxarreko papera —ez baitakit zer den— bete behar dugunoi, exigentzia eta maila goiari eusten. Oraintxe bertan, kostata utziko nuke. Gainera, denok desinteresatuak eta animosoagoak garen garai horrekin harreman zuzentzen du, eta jendearen behar oinarrituenak, jakingura asetzera, laguntzen du... Nik ordainsari ederra daukat exigentzia

Rafael Moneorekin  Madrilén



Madrieko Atotxako geltokian, bere lan ezagunenetakoa.

XOUSE SIMAL

## Guggenheim eta Kursaal

A.B. / MADRIL

Moneoren lana Euskal Herria ez zen sobera ezaguna, Donostiako Kursaalena irabazi zuen arte. Hala ere, parte hartu zuen Alhondigarako zentzurako proiektuan, zeharka izanda ere, eta orain buru belarri eta itxaropentsu ari da Gipuzkoako hiriburuko proiektu eztabaidatsuekin. Izan ere, elkarriketa osoan ez da beste proiektuaz bezainbeste mintzatu.

**EGUNKARIA.**— Bilboko Alhondigarako proiektuak, bere garaian, izugarriko polemika biztu zuen, eta azkenean ez zen aurrera atera. Duela gutxi Frank Gehryk, Guggenheim Museorako proiektua burutu duenak, toki aukeratua ez zela egokiena esan du. Proiektuan, Jorge Oteiza eta Francisco Sainz de Oizarekin batera, zuk ere parte hartu zenuen, zeharka izanik ere. Nola gogoratzen duzu?

**RAFAEL MONEO.**— Alhondigarako proiektuak, bertan zegoen eraikina erabili nahi zuen, eta horrek Guggenheim Fundaziorako aukeratu den orubeak baino errespetu handiagoa eskatzen zuen. Gehryren proiektua eta arkitektura indar handiagoz gauzatu ahal izango da oraingo inguruan, zubi, errepide eta abarrekin, eta ez Alhondigan kontserbatu behar ziren pareta horiekin solasean. Nik uste dut egokiagoa dela oraingo proiektua eskatzen zaionaren aurrean: mezu itxaropentsua.

**EGUNKARIA.**— Baina arazoa bakarrik orube kontuak ziren?

**MONEO.**— Ez dakit, ez dut arazoa hainbeste ezagutzen. Ni arkitekturari dagozkion arloak aipatzen ari naiz, eta Alhondigaren berrikuntza ez zen oraingoaren bezain garbia. Ez naiz Museoa-aren izakeraz —amerikarra den aldetik— ari. Alhondigak ez zuen oraingo tokiak adina leku, eta toki berriak joku ederra

emango du.

**EGUNKARIA.**— Zein izan zen zure lotura proiektuarekin?

**MONEO.**— Nere lotura bakarra Oiza, Oteiza eta Gorordorekin Bilbon egin genuen bilera bat izan zen. Ni beldur nintzen proiektuarekin, Pariseko Pompidou kiristalezko kuboaren errepikapen soberazkoaren beldur hain zuzen ere, eta uste nuen Alhondigarena horietako bat izan zitekeela.

**EGUNKARIA.**— Guggenheim proiektuaren inguruan polemika latza izan da Euskal Herrian, eta Donostiako Kursaalaren inguruan ere finantziario arazoak badaude. Zer sentitzen duzu arkitekturarekin berarekin zer ikusirik ez duten gaiek zure lanak oztopatu edo galerazten dutenean?

**MONEO.**— Oso garrantzitsua da proiektu batek ordaindu eta aurrera eramaten duten jendearen onespina jasotzea. Gure gizartean zaila da aurrera eramatea jendeak nahi ez duen proiektua, eta gustuko nuke Kursaal jendeak berarekin bezala sentitzea. Oso garbi daukat Kursaalaren ingurua pribilegiatua eta, era berean oso zaila dela, eta itxaropena daukat nere proiektuak inguruarrekiko harremanari eutsiko diola: paisaiarekin solasaldia, Urgull eta Uliarekin elkarriketa. Horregatik, eraikinak ez dira arkitektura ezagunak, eta badu erantzun berriek duten arriskua. Interes handia dauka nere bilakaera profesionalean, eta ongi ateratzen bada, historiak eragiten dituen ondorioak hobetzeko arkitekturak duen ahalmenaren erakusgarria izango dela uste dut. Kursaal da toki horietakoa, non batek asmatzen baldin badu, lan handia izango da, eta huts egiten badu, oso tristea. Asmatzen badu, eta erantzun zuzenaren arrakasta etortzen bada, tokiak barruan duen potentzial guztia erakutsiko luke.

**N**ere esperientziak egoera bakoitzaren berekotasuna estimatzera bultzatu nau, aniztasuna onetara. Horrek eskatzen du tratua desberdina proiektu bakoitzarentzat.

zuten eskultura uztera —iragarrita, baina ez benetakoa, nik uste—. Bere utopia —gizartea eta artea batzea—, zailago da gaur egun, eta nik ulertzen ditut Oteizak azken urteotan azaltzen dituen tristezia eta adierazpen ezkorrak. Bitar-


tean, bere lana mundu oso eta zuzen baten manifestu utopiko gisa geldituko da. Manifestu gauzatu ezinezkoa, akaso, baina, aldi berean, promesa erakargarria oso.

**EGUNKARIA.**— Azken urteotan lanen bat elkarrekin gauzatzeko aritu zarete.

**MONEO.**— Nik errespetu handia diot Oteizari, eta ez da hainbeste zerbait elkarrekin egitea nola, nere lanen batean, bere lanaren erakusgarria izatea. Neretzat poz handia izango zen, eta Iruñeko Auditoriumak aurrera egiten badu, bertan bere lanetako baten presentzia izango litzateke. Kursaal, adibidez, ezin da esan Oteizaren lanean oinarriturik dagoela, baina bere lanaren zordun da, dudarik gabe.

**EGUNKARIA.**— Une honetan egiten den arkitekturarik interesgarriena non dago, edo zeintzuk diren etortzen dena ulertzeko giltzak?

**MONEO.**— Gaur egun, onerako edo txarrerako, kultura nahiko bateratua dago, eta itxaropenak ematen ditu sentitzeak mundua ez dagoela bilduta soilik Pariseko edo New Yorkeko inguruetan. Edozein sormen lanak oinarri askoz zabalagoak ditu, eta lehen zegoen sentsazio horren aurrean,



Rafael Moneo.

XOUSE SIMAL

mailari eusten eta nere burua baliagarria sentitzen besteen aurrean. Horregatik, irakaskuntzak oso paper garrantzitsua bete du nere bizitzan.

**EGUNKARIA.**— Arkitekturan bereziki, badira jendearen aldetik eztabaida sortzen duten proiektuak,

beste arte moetan baino gehiago, akaso. Arkitektura kultura falta ote?

**MONEO.**— Ez da hori, aldrebes esango nuke. Jendeak jarrera ona eta sentikorra dauka gustatzen zaion lanaren aurrean eta senaz eta ongi erantzuten du... Badu arkitektura kulturaren antzeko zerbait. Jendearen iritzia, azkenean, nere ustez zuzena da. Arteak bultzatzen gutxiengoaren ondasuna dirudi, baina maisu lanek, azkenean, gehiengoaren onspena jasotzen dute.

**EGUNKARIA.**— Zure lana garbia eta sendoa da, eta esan daiteke, orokorrean, jende guztiari gustatzen zaiola. Zer iritzi daukazu espreski harridura sortzeko eginak dauden lanei —Madrieko KIO Dorreak, kasu— buruz?

**MONEO.**— Nik badakit nere lanen azaleko aurpegiak jende askoren onspena jasotzeko arriskua daukela, *quorum* honen aurrean gutxiengo bat gogoz kontra baitago. Baina arkitektura ez da bapateko artea, ez du orainaren eragina. *Largas cadenzas* behar ditu, une luzeak. Arkitektura lan batek gu hil ondoren iraun behar baldin badu, berritasun amorratuak ez dio justifikazio handiagoa ematen. Neri gustatuko litzaidake berrikuntzak duen kutsua maisuki banatzea, arazo baten aurrean soluziobide bakarra denean, baina bitartean, nere lanek gehiengoaren oniritzia dutela jakiteak ez dit ondoezik sortzen, are gehiago, harro sentiarazten dit. KIO Dorren inguruan, ez da bakarrik harritzea. Arkitekturaren munduarekin harreman duenak badaki non dauden bere jatorriak, eta, azken finean, eraikin komertzial hutsak dira.

**EGUNKARIA.**— Orain dela urte asko, 1967an, Jorge Oteizaren lanari buruz idatzi zenuen 'Nueva Forma' aldizkarian. Bertan esaten zenuen bere lana «ezagututakoa haintzat hartu gabe gizarte berri bat sortu nahi zutenen azken orrialdea» zela. Nola baloratzen duzu bere bilakaera?

**MONEO.**— Oteiza interes handiko artista da, berrikuntzarako duen nahia dela eta. Orduan esan nahi nuen Oteiza izan dela artista bakarrenetakoa, ez bakarrik Euskal Herrian, baina Espainia osoan, mundua beste ikuspegi batetik ikus zitekeela pentsatu duena. Bere mezuak baikortasun abangoardista handia dauka, eta hori gauzatzeko berak antzematen zituen zailtasunek bultzatu

## Gazteendako Zokoa

## Lepitzulia

*Jynx torquilla*  
Ugari Nafarroan  
Sugeen antzera  
arriskuaren aurrean



## Apala eta bihurria

Txori apala eta diskretioa, ez du batere arreta pizten, udaberri aldera egiten duen kantuagatik izan ez balitz. Neguko bere tokietatik heltzen direnetik etengabe ari dira kantuka arrek zein emeek, deika.

Nabarra da, zenbait marrekin, baina ez dauka inolako berezitasunik. Horrek aukera aparta ematen dio enbor zaharren artean izkutatzeke, eta inoren jakinmina ez pizteko. Okilen familiakoa da, baina ez ohi du zuhaitzetatik igo-tzen, besteak bezala, bere isatsa borobila eta ez sobera sendoa baita. Ez dauka besteen mokoa eta ez du kolpatzen enborran.

Hegalaldia mantxo eta aspertua dauka, eta altura txikian, zuhitzten artean igarotzeko erabiltzen du. Bere izena lepoa bihurtzeko duen erretzasunak eman dio. Arriskuan dagoenean lepoa luzatu eta bihurtu egiten du, eta lumak harrotzen ditu, sugeen antzeko mugimenduekin. Nonbait atarramendu ona ateratzen du, askok aurrean sugea dutela uste baitute.

Gustukoak ditu zuhaitzi zahar-rrak, enborretan paratzen baititu kabiak, eta bertan hain beharrezkoak dituen inurriak harrapatzen dituelako. Europa eta Asia osoan aurki daiteke, eta Nafarroan oso ugaria da.



## Azkenean irribarre bat

## IZASKUN PITILLAS

Eguberriak iristeko egun gutxi falta ziren, institutua ahaztu eta hamabost egun ondo igarotzeko prest nengoen. Baina gauzak ez ziren nahi nuen bezala atera. Nire gurasoek Mallorcara joatea erabaki zuten eta ni nire amonarekin uztea. Amona bakarrik bizi zen eta oso serioa zen, aitona hil zenetik inoiz ez nuen ikusi irribarre bat bere aurpegian.

Abenduaren hogeitalaua iritsi zen eta dena prest zegoen herrira joateko, leihotik lagunak agurtu ondoren aita eta amari errieta egiten hasi nintzen:

—Nola egin ahal didazue hau eguberrietan?

Aitak algaraka eta ni zirikatze-ko nahian esaten zuen:

—Ez kezkatu, zure amona martxoso horrekin ikaragarri dibertituko zara.

Amonak logela ilun eta triste batetan sartu ninduen, baina, egia esanda, etxe guztiko gelak berdina ziren.

Afaltzera jeitsi nintzen, gezu-

rra bazirudien ere gabona zen, eta amonak babarrunak eta oilo zati bat jarri zuen, normalean egunotan afari on bat prestatzen dela jakinik.

Hamarretan amona eta biok

**A faltzera jaitsi nintzen, gezurra bazirudien ere gabona zen, eta amonak babarrunak eta oilo zati bat jarri zuen, normalean egunotan afari on bat prestatzen dela jakinik.**

ohera joan ginen gure artean el-karrizketarik sortzen ez baitzen. Horrela igaro genituen egun batzuk: asperturik eta gure artean hitz batzuk soilik esaten.

Gabon zaharra iritsi zen, goi-

bel jartzen nintzen gau berezi hura etxean eman behar nuela pentsatzen nuen. Afaldu ondoren, eta mahatsa hartu gabe, oheratu nintzen.

Ezin nuen ondo lo egin, beraz, egongelara telebista ikustera jeitsi nintzen. Han zegoen amona sutondoan eserita argazki batzuk ikusten. Berarengana hurbildu nintzen eta bere begietan argi ikusten ziren malko txiki batzuk. Amonak eskuetan aitona argazkia zeukan, tristura handia ematen zidan atsoa horrela ikusteak.

Pentsatu gabe nire besoak zabaldu eta besarkatu nuen. Amonak nire eskuak hartuz barkamena eskatu zidan bere jarreragatik eta hain atso aspergarria izateagatik. Momentu hartan erantzun niona ez zait inoiz ahaztuko, aurpegian lehenengo irribarra ikusi nuelako.

—Lasai amona, nik betidanik jakin dut andre zahar horren barruan poza eta bizitzeko gogoak noizbait aterako zirela.



## BASAJAUN

**G**enen manipulazioa gizarteak oso ongi ezagutzen ez duen gertaera da, eta are gutxiago bere ondorioak eta kontrabaloak. Jarduera zientifiko honen helburu bakarra ekoizpen eta diru erreza da, teknika hauek menperatzen dutenen aberastasun azkarra. Horien bidez merkatu arlokoen monopolio industrial eta ekonomiko eskuratuko dute, ekonomia mundialaren oreka, berriro ere, boteretsuenen aldetik jarritz.

Ba al dakizue Ingenieritza Genetikoaren bitartez, gaur egun, bizidunak, animaliak, landareak eta gizakumeen zatiak patentatzen direla? Joan den astean ezagutu genuen nekazari eta ganaduzaleengan patenteak eta bere ondorioek dituzten eraginak. Orain ezagutuko dugu eragin hori kontsumitzaileengan.

Beti bezala, kontsumitzaileek beren poltsikotik ordainduko dituzte ikerkuntza genetikoak ekarriko dituen ustezko aurrerapen teknologikoak. Zeharka izanda ere, produktuak ordaintzean industria hori subentzionatzen dute, eta seguruenik bioteknologiak sortutako produktu hauek, ekoizpenaren kostua gehitzen duten kanonak direla eta, garestiago ordainduko dituzte. Bitxia izango da: patente horiek sortutako produktuak kalitatea baino patenteak berak baldintzatuko ditu.

Patente hauek ere animalien bizimoduan eragina izango dute. Nekazal interesak esne, haragi, eta produktu gehiagoren bila joango dira, eta horrek animalien giharreak eta egitura anatomikoak aldaraziko ditu.

## Jenero Xumekoak

## Angelita

**A**ngelita hil zorian dago. Penatan ito dio bihotza amodioak. Bere inude zaharra otoiitz egiten ari da, erreka Andreari. «Zeruan izarra errekaldean lizarra»... Baina ez da oroitzen haurtzaroko konjuro hartaz. Alferrik da ahalegina, erreka Andreari ez baitzaio axolarik kristau baten bizitza.

JEREMIAS ERRO

## KAZKARROAN

## KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheto taula osatu ondoren Basaburuan jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Pilota joko mota
2. Ur gezetako arrain ttiki
3. Intsektu mota
4. Josteko gai
5. Fruitu mota

A	3	B	4	D	2	D	7	B	7
A	5	B	9	D	5	A	1	B	2
B	1	A	4	A	7	B	5	A	8
B	3	D	1	B	6	A	2		
A	6	D	4	D	3	D	8		

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
A									
B									
D									

N-60

## Zaharrak berri

**Guk behar dugularik, ubaldian ez da urik.**

Gure behar orduan, inork ez du laguntzen.

Esteribar

—Zer gertatzen zaizu negarrez egoteko, bada?

—Apaizak bi aitagure erreztatzeko esan dit, eta nik bat besterik ez dakit.

## Bizi Bizian

**E**uskararen Legeak 10. artikuluan arautzen ditu Nafarroako 'eremu euskalduneko' herritarren hizkuntz eskubideak. Artikulu horren arabera, «Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskara zein gaztelera erabiltzeko eskubidea dute herritar guztiek. Era berean, erantzuna aukeratzen duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea daukate». Horra hor legeak dioena. Gero, eguneroko bizitzan, bestelako errealitate gordina: Nafarroako Gobernuak eremu euskalduna delakora bidaltzen dituen langile gehien-gehienak erdaldunak direla. Datu zehatzei erreparatu gero, mediku eta erizaitzen kasua da deigarriena, bai erdaldun kopuruagatik, bai herritarrekin nahitaez tratuzuzena eduki behar dutelako. Guzti hori dela eta, euren egonezina jendearean agertzeko sasoia zela erabaki zuten alde euskalduneko udalek eta Osasunbidea-ko talde batek. Horiek duela egun batzuk prentsarean salatu zutena baino ez da hemen jaso duguna.



# Euskalduna bazara, ez gaixotu

A. UNANUE / IRUNEA

Eremu euskalduneko udaletako eta Osasunbidea-ko ordezkariak jendearean agertzeraz mugiarazi dituen azken ostikoa zera izan da, Leitza, Lesaka eta Belurako mediku erdaldunak izendatu dituztela. Tamalez, azaroan ezagututako izendapen hauek ez dira salbuespena, egu-

neroko ogia baizik. Arantza-Igantzi, Goizueta, Ituren, Bera, Etxalar, Baztan eta Malerreko mediku eta erizain gehienak erdaldunak dira, inguru erabat euskalduna izan arren.

Gauzak honela, kasu bitxiak gertatu dira, hala nola kontsultara itzultzaile bat eman behar izana. Euskalduna izanik medikuarekin euskaraz hitz egin nahi baduzu,

gorriak ikusiko dituzu. Errazagoa da ez gaixotzea. Euskaraz bizitzeko, beraz, ez da nahikoa euskalduna izatea: osasuntsua ere izan behar da.

Arazoa, esan bezala, oinarrian dago, Nafarroako Gobernuak bidaltzen dituen langile gehienak erdaldunak direlako. Zenbaitzuk euskaldunak badira, zeruari edota langileak bere kabuz euskaraz ikasteko egindako ahaleginari eskertu behar zaio, Administrazioak ez baitu euskararen inolako ezaguerarik eskatzen lanpostuaz jabetu ahal izateko.

Eremu euskalduneko udalek eta Osasunbidea-ko langile taldeak arazoa legearen aldetik zein ikuspegi soziolingüistikotik aztertzen dute. Alderdi soziolingüistikotik aztertzen dute, «hizkuntza osasun zerbitzu egoki baten oinarrian» dagoela azpimarratu dute. Izan ere, harreman zuzena eskatzen duen zerbitzu hau eskaintzeko orduan, ezinbestekoa gertatzen da gaixoaren aldetik eritasunaren sintomak azaltzeko ahalmena eta, medikuaren partetik, adierazitakoa ongi ulertu eta diagnostiko zuzena egiteko gaitasuna. Esperientziak erakutsi duenez, hainbat herritarrek ez dakite erderaz edo ez dute ongi menderatzen. Sarritan, medikuarekin elkar ez ulertzearen beldurrez edo, kontsulta atzeratu egiten da gaixoaren kalterako. Hori dela eta, «ezin dezakegu esan herritar hauei osasun zerbitzu egokia ematen zaienik», Osasunbidea-ko langileen hitzetan.

Bestalde, legeak dioena dago. Aipatutako 10. artikuluz gain,

15.a ere gogoan edukitzekoa da. Horrek arautzen duenez, «bere menpe dauden eskumenei dagozkien lanpostuetan, Administrazioak zehaztuko du zeintzuetarako den beharrezkoa euskararen ezaguera eta, gainontzekotan, aintzat izango da meritu gisa».

Beraz, legeak argi eta garbi aitortzen die eremu euskalduneko herritarrei Administrazioarekin euskaraz hitz egiteko eskubidea. Bertako errealitatea ezagutzen dutenen esanetan, berriz, «eskubide hori aitortzen hutsean geratzen da. Medikua, erizaina, albaitaria, mendizaina edo liburutegiko arduraduna erdalduna bada, nekez bete ahal izango da legeak agintzen duena».

Euskararen Legea indarrean sartu zenetik sei urte pasatxo joan badira ere, Nafarroako Gobernuak oraindik ez du zehaztu bere langilegoan euskarari eman behar zaion trataera zehaztu. Nahiz eta udaletatik proposamenak egin diren, eremu euskalduneko ari diren langile erdaldunentzat ez da birziklatze planik antolatatu, ezta sail ezberdinetako langileak euskalduntzeko bitartekorik jarri ere.

Langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko planik gabe, euskararen normalizazioa Administrazioan urrun dago. Orain arte eman den urrats bakarra Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak eta Osasunbidea-k elkarrekin egindako txosten bat da. Bertan Osasunbidea-ko langileak euskalduntzeko proposamen zehatzak jaso dira.

EREMU EUSKALDUNA						
	Euskaldunak		Erdaldunak			
	MEDIKUAK	ERIZAINAK	OROTARA			
Erro-Aezkoa	-	5	-	6	-	11
Sakana	5	10	3	10	8	20
Mallerreka	1	3	2	3	3	6
Esteribar	-	1	-	2	-	8
Bortzirriak	-	6	4	2	4	8
Baztan	3	7	6	5	9	12
Leitza-Larraun	3	5	3	5	6	10

I.MARTIARENA

# Javier Lopez Vallejo

..... Futbol jokalaria

## Milanen ikusmiran

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Javier Lopez Vallejo 17 urte ditu. Bere familiarekin batera, Iruñeko Donibane auzoan bizi da, Urdazubiko Monastegia kalean, eta, beste gazte anitzek egiten duten bezalaxe, El Huerto ikastetxean UBla ekainan gainditzen saiatzen ari da, «datorren urtean unibertsitatera joan ahal izateko, Psikologia edo Psikopedagogia ikastera». Baina Javier Lopez Vallejo ikasle ona izateaz gain, futbol jokalaria da, atezaina, eta ikasketetaz gain eduki, badauka beste arazo latz bat. AC Milan munduko futbol talderik hoberean 500 milioi pezeta eskaini dizkio zazpi urteko kontratua sinatzearen truke, bere aita den Blas Lopezek dioenez. Atezain gaztearen esanetan, «zenbaki handi samarra ematen du horrek».

Javier Lopez Vallejoen familia —Javierrek berak behin eta berriz dioenez— «gorritxoia da oso», aita batez ere. Blas Lopez Osasuna Promesaseko jokalaria izan zen duela urte franko, eta semearen kontratoaren inguruan Ezkurrarekin eztabaida bat baino gehiago izan duen arren, Osasunzale amorratua omen da. Horri esker, Javier mukizu bat besterik ez zela, bere aitaren eskutik Taxoarerera jeisten zen bertan Bikuña, 'Mazinger' Basauri eta Roberto, orduko atezain gorritxoan entrenamenduak ikustera. Horrek piztu zion atezaina izatearen nahia. Ez dira urte asko pasa, baina egun gaztetxoak bera entrenatzen ikustera jeisten dira Taxoarerera. Eta noiz behinka, gaztetxoak ez ezik, hainbat futbol talde handietako begiraleak.

13 urte zituela Osasunako talde gazteetan jokatzen hasi zen,

hau da, lau urte eman ditu Nemes Esparza Osasunako atezainaren entrenatzaileen aginduetara. Honek Vallejo bere aginduetara egon den portorerik onena dela dio, eta gogoratu beharra dago bere agindupean egon direla Unzue, Unanua eta Roberto. Esan bezala, 13 urte zituela Osasunako talde gazteenetan jokatzen hasi zen, eta 14 zituela espainiar sub 16 selekzioarekin. Egun Osasuna Promesasen aritzen da, 2. B mailan, eta Espainiako sub 21 selekzioan. Espainiko selekzioekin orotara 36 partidu jokatu ditu, eta Promesasen ez dago bere postua ken diezaiokeen atezainik. Bere aitaren ustez, iada lehen mailako talde batetara salto egiteko ordua heldu zaio Javierri.

Jokalariaren aita ez da horrela pentsatzen duen bakarra; izan ere, AC Milanek ez ezik, Espainiako lehen mailako bost talde handienek eskaintzak egin dizkiote Lopez Vallejori. Egun —Osasunarekin kontratu profesionalik ez duenez— denboraldi

bakoitzeko 150.000 pezeta kobratzen ditu, eta Milanek, hiru aldiz, 500 milioi pezeta eskaini dizkio zazpi urteko kontratua sinatzearen truke. Baina esan bezala, Lopezarrak Osasunzale amorratuak omen dira, eta Blas Lopezek eskeintza berezia egin zion Ezkurrari bere semea Iruñean gera zedin. Lopezarrak 150 milioi pezeta eskatu zituzten hiru urteko kontratua sinatzearen truke. Kontratua indarrean dagoela edonork Javier fitxatu nahi izango balu, lehen urtean 100, bigarrean 150 eta hirugarrean 200 milioi pezeta ordaindu beharko litzekela gaineratu zuen Blas Lopezek, eta horretaz gain beste baldintza berezi bat proposatu zuen. Denboraldi batean Javierrek hamar partidu baino gutxiago jokatuko balitu, kontratua baliorik gabe geratuko litzateke. Kasu horretan, jokalaria Osasunari jasotako diru guziaz bueltatuko lioke, eta horretaz gain milioi bat pezeta jokatutako partidu bakoitzeko.

## Kontratua puztu nahian

J.K.L. / IRUÑEA

■ Taxoareko harrobiak eman duen harri bitxirik preziatuena omen da Lopez Vallejo, baina egon badaude horren preziatua ez dela pentsatzen dutenak. Jokalariaren aitak AC Milanek bere semeari 500 milioi eskaini dizkiola behin eta berriz errepikatzen badu ere, Milaneko ordezkariek jokalaria ez dutela fitxatu nahi adierazi zioten Gazzeta de-

Ilo Sport kirol egunkari italiarrari. Osasunako zuzendaritza batzordeak Milanen eskaintzarik ez dela existitu uste du, eta aldi berean beste talde handien eskaintzarik existitu denik ere kolokan jartzen du. Guzti hau dela eta, Gaztelu plazako taldearen zuzendaritza batzordeak jokalariaren aita zurrumuru guzti hauekin bere semearen kontratua 'puztu' nahian ote dabilen susmoa omen dauka.



Entrenatzaileak inoiz izan duen atezainik onena dela dio. O. MONTERO

NOSKI  
JATOR

ZVLDI ERQA

